

Errioxako Valvanera - Siete Villas, Urriaren 8a eta 9a

Udazkenaren hasierako aste-bukaera erakargarri bat pasatzeko proposamenarekin gatozkizu.

Urriaren 8a, Larunbata

Cabezo del Santo (1.854 m)

Brieva de Cameros herrian hasi eta bukatu egingo da ibilbidea. Bidean, Cabezo del Santora igo, eta Covaruña kobazulotik igaroko gara. Las Escalerillas arroilatik itzuliko gara abiapuntura.

Luzera: 18 km

Zailtasuna: Ertaina

Urriaren 9a, Igandea

Valvanera - Pico La Rioja - Tobía

Valvanerako monasteriotik abiatuta, Pico La Riojara igoko gara (1.564 m), eta Peña Tobía inguratuz, Tobía herrian amaituko dugu ibilaldia.

Luzera: 16 km

Zailtasuna: Erraza

Ekipajea: udazkeneko ohiko ekipoa; beroki/euritakoren bat, makilak, esku-zorroak, bi egunetarako mokaduak, ura eta abar. Ez sartu pisu gehiegi motxilan.

Lotarako tokia: Valvanerako monasterioko aterpea. Mantak badaude; maindireak edo zakua eramatea, bakoitzaren kontu.

PREZIOAK		Gazteak	Helduak
	Bazkideak	55.00 (25 urte arte)	90.00
	Bazkide ez direnak	60,00 (25 urte arte)	100.00

ORDAINKETA:

KUTXABANK	2095 5076 48 1065685215
LABORAL KUTXA	3035 0029 65 0290015562

PREZIOETAN SARTUTA DAGO: Joan-etorria autobusez Zarauztik, afaria, lotarako lekua eta gosaria (**mendirako edota gainerako mokaduak norberaren kontu**)

Plaza mugatuak: guztira, 30

Izen-ematea

Bi aukera daude:

- Pagoeta Mendizale Elkartean ostegunetan. Egunak: **Irailaren 15a, 22a eta 29a**. Ordutegia: 20:00tik 21:00ra
- Elkartearen helbide elektronikora idaztea (pagoetame@gmail.com), norberaren datuak emanez eta ordainagiriaren dokumentua erantsiz. **Irailaren 16tik aurrera jasotako mezuak soilik onartuko dira, eta irailaren 30ean itxiko da izen-ematea.**

Irteera. Larunbatean, goizeko 6etan, Agoues-eneko biribilgunetik.